

# EGITARUA – AZAROAK 25

## TERTULIA LILA

Zaida Fernandez

**Azaroak 12, 18:00etatik 20:00etara, Elkargunean.**

Indarkeria matxistari buruz eztabaidatuko dugu, erasoak identifikatu, kontzientzia hartu, mitoak aztertu... Tertulia girotzeko kafea eta pastak ipiniko ditugu. *Debatiaremos sobre la violencia que se ejerce sobre las mujeres. Para amenizar la tertulia habrá café y pastas.*

## TXAPA TAILERRA

Lore Etxeberria eta Kattalin Miner

**Azaroak 14, 16:00etatik 20:00etara, Elkargunean.**

Tailer honen helburua da emakume eta feminismoaren inguruan hausnartzea, txapak egiten ikasten dugun bitartean. *El objetivo de este taller es reflexionar en torno al feminismo mientras aprendemos a hacer chapas.*

## AUTODEFENTSA IKASTAROA

Alaitz Mañes

**Azaroak 18, 19, 26 eta abenduak 3, 17:00etatik 20:00etara, Elkargunean.**

Ikastaro honetan emakumeok jasaten dugun indarkeria matxista detektatzen ikasiko dugu, horri aurre egiteko hainbat teknikarekin batera. *Aprenderemos a detectar los diferentes tipos de violencia que se ejercen sobre las mujeres, así como a hacerles frente.*

## ZINE EMANALDIA

Zinetogramek eta Emakumeen Mahaiak antolatuta

**Azaroak 21, 22:00etan, Baztartxo antzokia.**

## MAHAI – INGURUA:

“Gazteak eta indarkeria matxista. Zertan ari gara? Nola egin aurre?”

*machista y los y las jóvenes. ¿Qué se está haciendo? ¿Cómo hacerle frente?*

**Azaroak 24, 19:00etan, Azpeitiko Sanagustin Kulturgunean.**

Hizlariak: Josebe Iturriotz, Susana Manzanedo (Sortzen Aholkularitza) eta Haizea Egiguren eta Axier Baglietto (Arremanitz koop).

Moderatzailea: Lorea Aizpurua.

Antolatzailea: Azkoitiko eta Azpeitiko Hezkidetza Foroa.

## ELKARRETARATZEA

Emakumeen Mahaiak antolatuta

**Azaroak 25, 19:00etan, Herriko Plazan.**

Ikastaro guztiak dohainik izango dira eta hartzaindegi zerbitzua eskainiko da behar izanez gero.

Informazio gehiago/más información: [www.azkoitikoudala.info/eu/berdintasuna](http://www.azkoitikoudala.info/eu/berdintasuna) edo

berdintasun bulegoan/área de igualdad: (09:00-14:00)

Udaletxeko 1. solairuan/1. piso del ayuntamiento.

berdintasuna@azkoitia.net // 943.85.71.74

## **AZAROAK 25**

### **Indarkeria matxistaren kontrako nazioarteko eguna**

Azaroaren 25a indarkeria matxistaren kontrako eguna da. Emakume izate hutsagatik emakumeen kontra egiten diren indarkeriazko eraso guztiek osatzen dute indarkeria matxista, eraso fisiko, sexual zein psikologikoen, ekonomikoen eta hitzezkoen, besteak beste.

Emakumeen eta gizonen arteko desorekaren adierazpen larrienetako bat da emakumeen kontrako indarkeria. Horregatik, indarkeria matxistari aurre egiteko ezinbestekoa da bizitzaren esparru guztietan, hala nola lanean, etxean, kalean, hezkuntzan... berdintasunezko harremanak oinarri izango dituen gizartea.

Hori dela eta, aurten ere hainbat ekitaldi antolatuta ditugu emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko eta jendartea sentsibilizatzeko. Besteak beste txapa tailer bat, autodefentsa ikastaro bat, pelikula bat eta tertulia lila bat indarkeria matxistari buruz eztabaidatzeko. Horrez gain, Azpeitia eta Azkoitiako ikastetxe guztiek (Azpeitia-Azkoitia Hezkidetza Forotik antolatuta) indarkeria matxistaren inguruan adierazpen bateratu bat adostu dute, eta agerraldi publiko batean horren berri emango dute. Indarkeria eta gazteak gaia ardatz hartuta mahai inguru/hitzaldi bat ere antolatu dute.

*El 25 de Noviembre, es el día contra la violencia machista. Ésta se refiere a todo tipo de violencia que se ejerce contra las mujeres por el mero hecho de serlo; violencia física, sexual, psicológica, económica y verbal, entre otras.*

*Este año también se han organizado distintas actividades para hacer frente a la violencia contra las mujeres, así como para sensibilizar a la población sobre este problema. Entre estos actos están: un taller para aprender a hacer chapas, una película, una tertulia lila para debatir sobre violencia machista y un curso de autodefensa personal. Desde el Foro de Coeducación de Azpeitia-Azkoitia también, harán pública una declaración consensuada por todos los centros educativos y una charla para hablar sobre violencia machista y jóvenes.*

**ANIMATU ETA PARTE HARTU!!**



**AZKOITIA**  
Udaia

